

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urtarrilaren 8a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bera • Lamixene Bat taldeak 'Caricias' lana taularatuko du.

Javier Ramos • «Hiesak dituen arriskuaz ohartarazi nahi ditu lurtarrak».

Orain bi mendeko Nafarroari begiratua



Carlos Santacarak
• idatzitako
'Navarra 1813. El
pais que vieron
los soldados de
Wellington' lanak
haren aginduetara
frantziarren
inbasioaren aurka
herrialdera
borrokatzera
etorritako soldadu
britaniarrek
idatzitako
eskuizkribuak eta
eskutitzak bildu
ditu. Horietan,
duela bi mendeko
Nafarroaren
erretratua islatu
da, herritaren
ohiturak eta
bizimodua, eta
orduko paisaia,
batipat.

Erronkari •

Herrialdeko eski pistak ezagutzeko aukera

Pirinioetako Partzuergoak Erronkari eta Zaraitzuko eski pistak bildu dituen gida kaleratu du

Pirinioetako Turismo Partzuergoak Larra eta Belaguako eski pistak bildu dituen gida kaleratu berri du. Argitalpenak Erronkariko Bailaran dauden eski pistak (Larra eta Belagua), eta Zaraitzuko (Abodi) jaso ditu.



Belaguara bisitari asko hurbiltzen da neguan elurraren bila.
• ARTXIBOKOA

PIRINIOETAKO TURISMO PARTZUERGAREN helburua Aezkoa zein Zaraitzuko bailaren ekonomia eta bizitza sustatzea dela aintzat hartuz, xede hori lortzeko beste bide bat da kaleratu berri duen gida. Jose Etxegoien, Partzuergoko idazkariak egindako testuez lagundurik, gidak aipatu bi bailaretan dauden fondoko eskia egiteko pistak ez ezik, bestelako informazio ere badakar: Izaban urtero ikaste-entzako eta helduentzako eskaintzen diren eski ikastaroak, edota bi bailarok lekutzen dituzten paraje eta pertsonaien ingurukoak.

Erronkariko Bailaran dauden Larra eta Belaguako estazioak 22 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egiten duten pistak dituzte. Guztira bost pista dira: Eskilzarra, Bortuzko, El Ferial, Bagomalta, eta Lazako atea. Gidak dioenez, Zanzporikoa salbu, besteetan eskia egitea erraza da eta hasi berria ere ari daiteke. Guztiak elkar lotuak daude eta basoetxerako bidea dute.

Era berean, materiala alokatu nahi duenak El Ferialko pistan edo Izabako herrian egin dezake.

Bestalde, Zaraitzuko Abodi eski estazioak sei pista eskaintzen ditu: Zamakadoia, Osaba Gurutzea, Zerrillar, Eburneko Amabirgina, Laza, eta Abodiko zelaia. Erronkariko modura, Abodiko eski pistak ez dira zailak. Dena dela, Zamakadoiako zati batean tentuz ibili behar da gainbeherak nabariagoak direlako.

Jose Etxegoien, Partzuergoko idazkariaren arabera, abeltzaintza eta nekazaritzaren ondotik turismoa da zonaldeko baliabide ekonomikoa. Hori dela eta, turismo-

ari behar bezalako garrantzia eman behar zaiola dio. «Zonalderako turismoak duen garrantzia baloratzen hasi behar dugu. Orain arte asteburua igarotzera datorren turista izan dugu Zaraitzun eta Aezkoan, baina orain nabaritzen hasiak gara denbora gehiago igarotzera etortzen den jendearen bisita», azpimarratu du. Beraz, argitaratu duen gida turismoa bultzatzeko beste modu bat izan daitekeela iritzi dio Etxegoienek.

→ Uxue Zabaleta

Araitz-Betelu

Emakumeak kexu dira


AURREKO HILABETEETAN Nafarroako Gobernuak martxan jarri berri du Emakumearen Atentziorako Plana. Plan honek Araitz-Beteluko emakumeen egoera hobetuko zuelakoan zeuden bailaran, baina orain salatzen dutenez, hoberako beharrez, kalterako izan da plana abiatu izana. Aipatu plan horren arabera, Araitz-Beteluko emakumeek kontsulta obstetrikoginekologikoa behar duten aldiro, Etxarri-Aranatzeraino joan behar dute, hiriburura joateko aukera, asteko egun bakar batetara mugatzen delarik. Atalluko Maite Aranburuk ez du uste erabakia egokia denik. «Kontutan eduki behar da Etxarriaino ez dugula inolako autobus linearrik, eta, beraz, zenbait emakumeek behintzat, bertaraino joateko dituzten aukerak murriztak direla. Autorik edo gidatzeko karnetik ez dutenek, behintzat, badute nahikoa lan», dio Medikurako bisita bat dena, txangoa bihurtzen omen da.

Maite Aranburuk salatu duenez, egoera are latzagoa da, erditzearen ostean. «Hemengo Osasun Etxean ez dago emaginik, ezta etxez etxeko atentzio zerbitzurik ere».

→ Urko Aristi

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Memorian erdi lausoturik badaukat ere, oraindik gogoan daukat bizirik itsasoarekin egindako nire lehenbiziko topaketa, orain denbora luze Kantauri aldean egokitu zenekoa, alegia. Izan ere, haur nintzela, inguru honetako beste askori gertatu ohi zaien bezala, ni ere ibili nintzen -hasieran gurasoen eskutik helduta, ondoren libre antzean- Zarauzko edo Donostiako ondartzetatik paseatzen; begiak, beti ere, itsaso zabalari zur eta lor lotuak. Noiz edo noiz, galerna bat-edo ikuskatzea tokatu zait suertez, aterpetik ikusita, noski; eta baita, noiz edo noiz ere, egon naiz ikusle irailako marea bizien aurrean: ezin ahaztuzkoak, naturaren indarraren ederra! Beranduago, gazteago izaki, Pio Barojak itsasoari buruz idatzitako trilogia irakurri nuenean -hari eskerrak aitor dut-, arras aberastu nuen nire oharmena itsasoaren gainean. Nire ikuskera, nolabait esatea-

Eguberriko itsasoa

rreren, osatuagoa izan zen haren ondotik, eta beste era batez hasi nintzen kontuan hartzen eremu busti ezezagun hori; zeren ur masa ikaragarri harek liluratu ezezik izutu ere izutzen baitzuen maiz; itsasari buruzko istorioak, itsas-gizonek kontatzen zituztenak -Tximista eta Shanti kapitainarenak, Dama Zuri edo Argonauta itsauntziari gertaturikoak...- halakoxeak baitziren gehienetan: izugarriak, beldurtzeko modukoak.

Itsasoa ez da aise menperatzen den erraminta. Ez da soilik -tamalez, eskuarki hartzen dugun legez- udapasarako pasadizo dibertigarria. Arrantza-leen lantegia ere bada, eta harrotzen-denean -Bizkaiko itsasoak berrikitan egin duen tamainan-, orduantxe erakusten du, osoki eta erabat, itzelezkoa dela bere poderioa; haize bafadaren laguntzaz hamabost metroko olatuak altzatzeraino gai dela, eta, finean, zauritu ere egiten dituela beraren kontura bi-

zimodua ateratzen ausartzen direnak: arrantzaleak. Itsasoa, horratio, etxeko edo tailerreko zerra zorrotza bezalakoxea da, deskuidoan ebaki sakonak egiten dituena, trebatuenari ere zauri latzak eragiteraino: lerro hauek idaztean, urtarilaren bostean, «Marrero»-ko zortzi gizonek galdurik darraite itsaso barranean, eta uraren menpe doaz, jitoan, eskifaia-ekin eta guzti, ur sakonen barrerara. Baina lehorrera jo behar da baita ere, itsasoak sor dezakeen mina nolakoa den ongi neurtzeko: haizetea eta olatu bortitzak porturaino ailegatu ez diren arren, beraien zipritin mingotsak ailegatu dira Pasaiko senitarteko eta lagunenganaino: «itsasoak noizbait itzuliko dizkigu azalera?», diote bere artean.

Gainerakoei, trabatuko ahal zitzaingun eztarrian -sikiera, instat bakar batez izanik ere- iraganeke egunetan bapo jandako langostino horietako bat!

Bera ●

'Caricias' antzeslanaren estreinaldia

Lamixene Bat taldeak lan berria aurkeztuko du asteburuan Kultur Etxean

Berako Lamixene Bat antzerki taldeak bere hirugarren aretoko antzeslana aurkeztuko du jendaurrean: *Caricias*. Bihar eta etzi arratsaldeko 20:00etan izanen dira emanaldiak herriko Kultur Etxean.



Lamixene Bat taldea bere azken lana entsaiatzen.
●
MIKEL SAIZ

1992 KO UDAZKENEAN Herrian sortutako antzerki tailerrak bere hirugarren antzeslana aurkeztuko du bihar eta etzi Berako Kultur Etxean. Sergi Belbelen *Caricias* antzeslana, eta autore beraren *Elsa Schneider* lanaren testu zatiekin osatu dute antzeslana. Hamahiru eskenatan zehar, bertze hainbertze aktorek egiten du lan. Eskena bakoitzean bi aktore baino ez dira azaltzen, eta hurrengo eskenan horietako bat mantentzen da. Harremanak, beraz, bikotekakoak dira oholtzaratuko den lanean. Egunerokotasunean oinarritutako testua da *Cariciasek* bildu duena, eta une ez egoki batean errandakoak jaso eta atondu dira bertan. Bakarda-

deak eta komunikazio ezak eragindako eta sortutako egoerak dira ikusleak antzeman-go dituenak. Egoera eta gertakari gogorak azaltzen dira, eta hortaz, helduentzako ikuskizuna da.

Egun, antzerki tailerrean larunbatero hamahiru aktore biltzen dira, nahiz eta horietatik anitz ez diren beratarak. Eskualdeko hainbat pertsona biltzen dira Maria Agirrerren aginduetara. Aurretik ere bi lan egin zituzten aretoan, lehena 1994ean estreinatutakoa, *Altzatzeko jaun*, Pio Baroja idazleak idatzitako lanaren egokitzapen modernoa aurkeztuz. Bigarren lana sormenekoa izan zen. Aktore bakoitzak bere lanetik pertsonai

bat sortu zuen, eta horien guztien batuketatik eraiki zuten istorioa, *Lilien lilura*, hain zuzen. Horrezaz gain, makina lan egin dituzte kalean: Lore Jokoetan, 1995ean, Gazte Jokoetan hiru urtez jarraian; 1996, 1997 eta 1998an, Haurren Egunean herrian, haur gutxiagotuekin Miarritzen...

Antzeslan gogorragoa Hirugarren lan honek aurreko biekin alderatuta badu alde nabarmenik. Testua bere horretan mantendu dute, eta aktoreak egokitu behar izan dira testura. «Gogorragoa izan da. Lan hagitz zaila da, aktore lana izugarrikoa baita, eta isiltasunak eta gorputzaren espresioak pisu handia hartzen baitute», dio Beatriz Lazkanotegi taldeko kideak. «Ikuslearentzako ere bortitzagoa izanen da, elkarrizketak aguro dihoazelako, eta zinez gogorragoak direlako. Ez du aurretik egindako lanekin zerikusirik, eta are gutiago haien umorerik», erantsi du.

Antzeslanaren berezitasunak Berako Kultur Etxeko aretoa egokitzea eraman die, eta soilik 125 lagunendatzako tokia izanen da funtzio bakoitzean. Sarrera 500 pezeta kostako da, eta biltzen dena Ertamerikara igorriko da, Mich haize erauntsiak sortutako kalteetan laguntzeko.

→ Jon Abril



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Iparraldeko tren ttipiak

Herria astekariko azken zenbakiak Iparraldeko aspaldiko tren txikiak eta burdin-bideak aipatzen ditu. «Tren ttipien burdin-bide hertxi frango zegoen, lehenago, Iparraldean. Horietako bat izan zen Baiona-Angelu-Biarritze ibilbidea egiten zuena, 1877. urtean idekia. Bide horrek juntatzen zuen Baiona Biarritzerik oren laurden batez. Baionan, B.A.B-eko geltokia -gaur egun aurdikia- Paulmy ibilbidean zagon. Haren

XIX. mende undarreko arkitekturak bazuen fantesua eta xoramena. Egon-gelan aurki zitaizken, oraino 1950. urte hastapenetan *automato* edo bergailu arras xahar batzu, bereziki errexiñola mekaniko bat kaiola batean, kantarazten zena zentima batzu eskainiz».

Iparraldeko trenbideen artean, Larungoa ere aipatzen du **Herria** astekaririk: «Gaur egun Iparraldean gelditzen zaukun burdin-bide hertxi bakarra da.

Abiatzea Santiñazioko mendatean (179 m), heltzea Larrungo kaskoan (900 m), Hiru-Iturrietan gaindi iganik».

«Tren ttipi horiek kasik elektrika erabiltzen zuten: nahiko ixilak ziren beraz, gutti kutsakorak eta petrola-gabeak. Gainera, kasik tren-bide guziak auto-bideetarik berex ziren. Baina tren horien materiala ez zen sekulan hobetua edo modernizatua izan, eta kasik denak betirako kenduak izan dira».



Xabier Larraburu

Igogailuak debalde!

Iruñeko Alde Zaharra eta hiperrak osatzen duten sistema astronomikoak badu parekotasunik Lurra eta Ilargiak osatzen dutenarekin. Bide batez esanda niretzat Iruñeko Satellite horiek Ilargia bezain urruti daude eta ilargia bezain eskuraezinak dira. Ez dut haraino joateko espazio-ontzirik, eta, beraz, bizimodu erabat lurterra daromat. Are gehiago, lurraren azalean ez bainaiz bizi, muinean baizik. Grabitatearen eraginez Alde Zaharrera, pisu handiko gainontzeko metalen eta harrien antzera, estuki lotuta nago: adin handiko jendea, arabiarak eta ijitoak. Txirotasunak badu berunezko arima bat nonbait, eta zentruari estuki lotzen da. Planetaren bihotzean gutxien mugitzen direnak adineko pertsonak dira. Aszensoerik ez dagoenez burdinezko gizon-emakume hauek alde-menekoa dendatxoan erosketak egiteko bakarrik ateratzen dira. Haragitegian aurkitzen ditunik. Haragitegian pisuzko metalak biltzen dira: Uranio, Plutonio eta Kryptonita. Gauza ikaragarria da ikustea planetaren erdi erdian dauden elementu geldi hauek. Izugarria. Erosketa txikiak egiten dituzte, geroxeago hiru edo lau pisu igo behar dituztelako. Nire etxeko eskaileratan sarri aurkitu ditut Plutoniozko emakume hauek. Gaxuak esku bat poltsan eta bestea paretan daramate, pausoz pauso ahal duten moduan, eta pausaldiak eginez igotzen dira, arnasestuka. Beraien atzetik sentitzen bazaituzte, gazteen erritmo azkarragoak entzuterakoan, gelditu eta alde batera egiten dute pasabidea uzteko. Eta arnasestuka agurtzen zaituzte edo ahalegintzen dira. Beti emakumeak dira. Beti. Jakinda laguntzeko joera dugula, batzuk atarian gelditzen dira itxoiten. Gazte bat noiz etorriko zain. Horrela ematen dituzte ordu erdi luzeak. Hiperretan tonaka erostearena zientzia-fikzioa da horrelako bihotz ahulentzat. Zerbitzu hori ordaintzea garestiegi aterako zaie nonbait. Dena den, akaso artikulu honekin pasatu egin naiz. Finean, zer interesa du burdin eta plutonioaren erreinu hitsak?. Gasa redios!. Ura kopon!. Izan gaitezen arinak, kosmikoak, espaziountzitarrak!. Kryptonikak zeharo ahultzen ditu gu bezalako supermanak. ●

Duela bi mendeko Nafarroaren zertzeladak

'Navarra 1813. El pais que vieron los soldados de Wellington' lanak frantziarren aurka borrokatzera etorritako soldaduek herrialdeari buruz idatzitakoa bildu du

Carlos Santacarak idatzitako Navarra 1813. El pais que vieron los soldados de Wellington lanak haren aginduetara frantziarren inbasioaren aurka herrialdera borrokatzera etorritako soldadu britaniarrek idatzitako eskuizkribuak eta eskutitzak bildu ditu.

Horietan, duela bi mendeko Nafarroaren erretratua islatu da, herritarren ohiturak eta bizimodua, eta orduko paisaia, batipat.

WELLINGTON DUKEAREN AGINDUETARA zegoen britaniar, espainiar eta portugesezko soldaduek osatutako armada aliatua 1813ko ekainaren 22an sartu zen Nafarroan. Aurreko egunean Gasteizko ateetan jazotako gudan frantziarrek garaitu zituzten arren, Sakanako Ziordia herritik barneratu ziren Frantziako Armadaren jazarpean. Orduetik abendura bitartean Wellingtonen soldadu britaniarrek Nafarroan bizitakoa eta ikusitakoa kontatu du Carlos Santacara nafarrak Txalaparta argitaletxearekin kaleratu duen *Navarra 1813. El pais que vieron los soldados de Wellington* liburuan. Nolanahi ere, Santacaren lana ez da historia liburua. Gertakari historikoak gogoratu dituen arren, bere lana ez da akademikoa. Bai ordea, Nafarroako historiaren pasarte bat kontatzeko beste modu bat. Bere nortasuna Bilbon jaiotako nafartzat duen gizonak, britaniar soldaduek senideei idatzitako eskutitzak, edota egunez-eguneko hartu zuten egunkarien pasarteak itzuli eta bildu ditu lanean. Finean, gudara etorritako gizon haiek ikusi zutenaren ikuspegia emanaz. «Ez naiz historiagilea eta ez dut historia liburua bat egin. Nafarroako historiaren ezagutzen ez den garai bateko bertako jendeari, paisaiari eta ohiturei buruzko britaniarren ikuspegi neutrala jaso dut».



Carlos Santacara

«Ez naiz historiagilea eta ez dut historia liburua bat egin. Nafarroako historiaren ezagutzen ez den garai bateko bertako jendeari, paisaiari eta ohiturei buruzko britaniarren ikuspegi neutrala jaso dut».


Gurasoak Zarrakaztelukoak baditu ere, hogeita hamar urte daramatza Londresen bizitzen eta hamabi Espainiako Enbaxadan lanean. Orain laupabost urte hasi zen argitaratu berri duen liburuko informazioa pilatzen. Gurasoen herriaren inguruko, Zarrakazteluko, informazioaren bila zebilen Londresen. Erriberako herria frantziarrek suntsitu ote zuten esan da beti, eta susmo hori harilkatu nahian zebilela bestelakorik topatu zuten.

Penintsulako Gerraren inguruko informazio asko

Londresen dauden udal liburategietan hasi zen zoko-miran, eta Museo Britaniarreko eta Armadako liburategietan jarraitu zuen. Hortan zebilela ohartu zen britaniarrek Penintsulako Gerra (Independentzia Gerra) deitzen dutenaren inguruko informazio asko zegoela: eskutitzak, egunkariak, eskuizkribuak, eta oroitzenak, gehinbat.

«Jendea ez da kontziente dagoen informazio kantitateaz. Horietako oroitzenak batzuk duela 20-30 urte argitaratu dira, baina gehienak joan den mendetik ezagutzen dira. Liburuan aipatzen diren batzuk oraindik publikatu gabe daude nahiz eta ezagunak diren», dio. Horietaz landa, bada gehiagorik baina Galeseko Unibertsitateko, Eskoziko, Oxfordeko, Chambridgeko errege-estroetan sakabanatua dagoen materialean topatu beharko litzateke, argitaratu ez diren eskuizkribu asko daudelako oraindik. «Britainia Handian horrelako liburu asko daude. Gerran soldaduan nola bizi ziren, zer jaten zuten edota zer nolako harrernak zituzten joaten ziren tokietako biztanleekin kontatu dutenak», gaineratu du Santacarak.

Dena dela, ongi erreparatu behar omen izan du informazioa eskutitz eta egunkari onak dauden moduan, akats asko dituztenak ere izan baititu eskuarteetan. Britaniarrek A Coruñaetik Portugalera 1808an sartu baziren ere Penintsulara, Nafarroan, denbora gutxiago egon ziren. Horretaz gain, gudara etorri zirela aintzat hartuz, denetarik



Lurraren zertzeladak, Noain inguruan ikusia:

«...Beste edozerk ez du adierazten argiago herri hori nekazaritzan izan duen garapen eskasarekin. Herrerak oraindik garia jotzeko, Moisesen idazkiak abera, judutarren eta antzinako beste herri baten artean erabiltzen zen modu zaharra erabiltzen baitute. Lurraren gainean egurrezko plantak estengatzen duten plataforma borobila kokatu da. Idaur astun bati lotutako mandoak eta zaldiak kuloaren biran tiratzeko baliatuak dira...».

Euskalunen inguruan egindako aipamenen ugariariko bat Alkotetik idatzia:

«...Jazira, hizkuntza eta ohiturak Espainiako ezberdinak dira. Ganudu arraza ona dute eta zaldi



XIX mendeko soldaduen irudi ikusgarria dagoen golan. Eskutitzan, garai bateko nafarrek.

aurkitu du Santacarak. «Eskutitz asko daude, eta oroitzenak ere gerra bukatu eta 20-30 urtetara idatziak. Batzuk onak dira bidaia egin ahala idatziak daudelako, baina beste batzuk, buruan hartutakoak kontatzen dituzte, xehetasun gehiegirik gabe. Askotan ez dakigu zehazki non gertatu ziren. Dena dela, gehien publikatu direnak eskutitzak dira eta gerrako unean idatziak daudenez informazio zehatzena eta egiazkoena eskaintzen dute», azpimarratu du.

Britaniarrei harreta deitutakoak zenbait pasarte

basati ugari. Ibai askotan amorrainak daude. Oso arraza aktiboa dira eta soldadu onak lirateke. Ezezagun batzetzako ikasteko oso zaila den hizkuntza bat mintzatzen dute...»

Ehizara joandako batean Taxoare herrian gertatu:

«...Auzokide talde bat gurekin etorri zen. Hiru egun eman genituen txangoa egiten. Lagun bakoitzak hiru metroko lantza zeraman. Denak zaldi gainean gindoazen baina mendi gainean utzi genituen. Basoan gidari adituekin barneratu ginen, baina gutako inori ez zitzaioala hura gustatzen zirudien, oso nekosoak baitzen. Aurreneko bi egunetan otsoak besterik ez genituen ikusi, eta askori tiro egin genien ongi pasatzeko besterik izan ez bazen

ere. Animalia bikain haiek eraso egin ziguten zaurituak zeudelako eta gure lantzekin akatuz bakarrik defendatu ahal izandu ginen...»

Herritako dantzaldien inguruko, Erriberitik idatzia:

«...Boleroa eta fandangoa dohain gutxiarekin dantzatzen dute hemen. Esan beharra daukat gure ofizialeko askok bertakoak baino askoz hobekiago aritzen direla. Neskak diote ingelesak kristauak bagina perfektok ginetekeela, eta normalean biharamonean absuluzioa lortzen dute, gurekin aurreko gauean dantzatu eta gero. Baina zenbat eta absuluzio gehiago lortu are gehiago behar dituzte, eta apaizek absuluzio orokorra emateko eskaini dira ofizial inglesen alde...»



Iritzi ona nafarrei buruz

Denetarik irakurri daitekeen arren, Wellingtonen aginduetara Nafarroan egon ziren soldaduek nafarrei buruz ongi mintzatu ziren euren izkribu eta eskutitzetan. «Badira kritika onak eta txarrak, ez dut deus kendu, baina orokorrean ona dela esan nuke», adierazi du egileak eta Picton generalak idatzitakoa dakar gogora. «Hark dio Nafarroa eta Aragoiko probintzietako jendea Hegoaldeko probintzietakoa baino azkarragoa eta aurreratua dela».

Dena dela, nafarren ohiturak eta jokaerak ez ezik, haiek euskaraz mintzatzeko asko harritu zituen britaniarrek. Gerra luzea izan zen, kasik sei urte iraun baitzuen. Penintsulan barna ibili ziren aurrera eta atzera. Hori dela eta, portugesearen eta gaztelarearen oinarriko hitzak eta esamoldeak ikasi zituzten biztanleekin ulertu ahal izateko. Nafarroara iristean konturatu ziren ikasi zuten gaztelaniak ez ziela askorako balio. «Askok aipatu dute keinuekin ulertarazi behar dutela. Haien-

Ikertzen jarraitzeko asmoa

Carlos Santacarak dioenez interesgarria den informazio asko omen dago oraindik ikertzeko. «Dena den, esku-titz eta eskuizkribuen iturria agortu dudala uste dut». Hala ere, artxiboak arakatzeko zebilela Nafarroako geografiari buruzko informazioa aurkitu zuten eta hura xehetuz hasteko asmoa du. Bilduma pribatu batean dago eta oso interesgarria dela dio. «Xede militarrekin egina den 80 orrialdeko txostena militarra da», argitu du. Nafarroako herri bakoitzak soldaduek hartzeko duen kapacitateaz informazioa jaso du, eta, era berean, herriaz hitz egiten du. «Saikatu ditu herriak, ibaiak eta bideak. Oso interesgarria da Madozenaren 20 urtez aurrekoa baita. Nahiz eta Nafarroa osoa hartu ez, Tuterak, Lizarherria, Iruñea eta Iruñerria jaso ditu, eta Errioxa eta Arabako herri batzuk ere aipatu ditu», dio pozik egin duen aurkituntzarekin. Bilduma pribatu berean, eta nahiz eta britaniarrek handik iragan ez, Zaraitzu, Erronkari eta Aezkoako herrialdeak bildu dira zazpi orritako beste txosten batean. nahiz eta britaniarrek handik iragan ez. Orain, gutxi itzultzeko baimena lortu zain dago Santacara.

tzako aldaketa handia izan zen espero ez zuten hizkuntza batekin topo egitea», esan du Santacarak.

Araza arazo, nafarrek ongi hartu omen zituzten britaniarrek. Frantziarretaz nekatuak zeuden, harrapakaria zutelako ohiko jokamolde. Britaniarrek aldiz, bestela jokatzeko omen zuten. «Ohikoa zuten hartzen zutenagatik ordaintzea. Araudi nahikoa gogorra zuten eta zigortu egiten zen zerbait harrapatzen zuena. Gainera, frantziarrek hemendik botatzeko laguntzera etorri izan zirenez, pozik hartu zituzten», argitu du.

Hala ere, iskanbilak ere izan ziren. Erriberri bi hiru hilaketa izan ziren geloskorriak direla eta. «Ehundaka soldadu zeuden mila edo bi mila biztanleko herrietan. Dantzaldietan, eta herriko jaietan herritarrek harremanak izaten zituzten. Wellingtonekin Nafarroara 20.000 soldadu baino gehiago etorri ziren eta horietaz gain Portugaleko eta Frantziako armadak zeuden», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Dantzari emaniko tratamendu aldaketa XX. mende hasmentetan: abertzaletasuna iritsi zenekoa (II)

Halarik ere, bere lanik gehien sindikalismoaren barruan garatu zuen ELA-ren barruan. 1929.ean Mugika apezpikuak apezpikutegiko Giza Ekintza idazkaritzaren zuzendari izendatu zuen.



POLIKARPO LARRAÑAGA: txistularien laguna
Polikarpo Larrañaga Aranguen Soroluzen jaio zen 1883.eko urtarrilaren 26an. Eliz ikasketak Gasteizen eginak, 1908.ean apeztu zen. Elgoibarko eta Elbarako erretoare ihardun zuela. Idazle gisa, askoak izan ziren utzi zizkigunak. 1919.ean *Euskal umeak euskal zaletu* antzezlanaren saritu zioten Euskal Esnalekoek, ber gauza errepikatuko zena handik bi urtetara *Mendiko eguna* zartzelarekin. 1923.ean Eibarren estrainekoz jokatu zen bere *Amets larria* antzezlanaren. Antzerkiaren landa, euskaraz ere *Arrateko Andra Mariaren bederatziruena* eliz liburua utzi zigun -Zornotza, 1919-, baita garaiko aldirikarietan *-El día, Euzkadi, Argia, Yakintza...* - hamalka artikulu eta hitzaldi ere -*Arrate*, Donostia, 1926-.

Halarik ere, bere lanik gehien sindikalismoaren barruan garatu zuen ELA-ren barruan. 1929.ean Mugika apezpikuak apezpikutegiko Giza Ekintza idazkaritzaren zuzendari izendatu zuen. 1932.ean Eusko Tostarteko Bazkuna sortu zuen Ondarrun, arrantzaleen egoerak kezkatuta -jada 1925.erako gaiak kezkatzen zuela erakutsia zuen, urte hartan Euzko Ikaskuntzaren Batzarrean Aitzolekin batera aurkeztu *La pesca marítima en el País Vasco* txostenak erakutsi legez-.

Gerrateak ihesean ezarri zuen gure Larrañaga, eta Baionan finkatu zuen bizitoki berria. Handik hainbat lan agertu zuen, betiere ezizenekin: *Le nationalisme basque et la guerre civile en Espagne* Parisen agertu zuen 1937.ean Pierre Duhalderenean, Buenos Airesko Ekin argitaletxearen eskutik *Riqueza y economía del País Vasco* agertu zuen 1945.ean Andoni de Soroluz bezala, eta Xabier Bursain goitizenarekin, *Persecuted, defamed, abandonet: the basque clergy defending justice and brotherhood*

serves the Church of Crist 1946.ean. Baionan hil zen 1956.eko abuztuaren 30ean, eta oraino, hainbat lan hil ostean agertuko ziren, esaterako, 1976.eko *Contribución a la historia obrera de Euskal Herria* edota 1978.eko *La mujer en el nacionalismo vasco*, biak Estornesen Auñamendi etxean.

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak 1929.eko uztailaren 19an Donostian burutu zuen III. Batzarrean Polikarpo Larrañagak *La moral vasca: moralidad y costumbres vascas* izenburuko hitzaldia ogutzi zuen -Aita Donostia eta Jose Olaizola kide zituela-, hurrengo urtean Bilboko Miserikordia Etxeko moldiztegiaren argitaratu eman zena Sandallo Tejada Sarabiaren sarriera batekin. Honetan, euskal dantzaren historia txikia eginik, euskal dantzen aldeko oihua editen zigun kanpotik zetozen dantzen kontra, mezu abertzalea nabaria izanik ere, moral aldetik kanpoko dantzen desegokitasuna zela eta. Ez ziren oharkabean igaro Larrañagaren idarokizunak, eta 1931.eko Txistulari aldirikari Larrañagak berak proposaturiko gomendioak eta iztuetaren gainekoak jasotzen zioten. Aldizkarian, bestalde, 1928.ez geroz agertzen hasi zenetik, behin eta berriz gaia agertu zen, euskal dantzen alde eta kanpotik etortzen ziren dantzen kontra, moral zela eta.

Blas Alegria: Nafarroatik abotsa

Jadanik aipatua dugun Blas Alegria apez lakuntzarraren *Gure ama* liburua -Iruñea, 1931-. Euskerari belanda dagoen idazki txukunean aipamen laburra baidzik ez du jasotzen dantzen gaiak, baina ezin argigarriagoa delakoan bagaude: "Kaletarren dantzak: Menditarren beren dantzetan, euren gogo ta zenuz guziak ongi dantzetan jartzen dituzte, azkar eta bixi, izardi patsetan jartzera=0 ibiltzen dira,



etzaioe ezer beren laguna legerdi bat bidean urrun dantzaten bada. Dantzategi edo geletan, dantza da gutxiena. Zenzuen zalekeri itxua, ori da aurreneko. Argatik oietan, kaletarretan, dantzariak urreratzen, laz-tantzen eta lotzen dira beti. Menditarretan ez dira ezagutzen orrelako lasakeri eta itxura gaiztoko gauzak".

Patrizio Orkaiztegi: oholtzatik predikari


Andoainean 1840.ean sortua zen Patrizio Antonio Orkaiztegi; Sorabillan, Elgoibarren eta Arrasaten ibili zen apez 1880.ez geroz Tolosako artzapez ihardun arte. Karlistadan Santa Kruz apezaren laguna izateak berebiziko ospea erakarri zion, baina baita euskal letratan aritua izanik ere. "Euskal-dantza" izenburupean, bertsoz tajaturiko elkarrizketa agertarazi zuen 1914.eko Euskal Esnalea-n lehenbizi eta 1932.eko Antzerti aldirikari geroago:

"Polkak / Rigodoi eta baltsak / Badakin ez dirala / Gergori, euskal-saltsak / Eder-garbiyak / Polit egokiyak / Dituñ, t'ezin ukatu noski, gure dantzak / Pañubelotxua / Txuri txukun aterarrikan / Ezti-ezti eman / Muturrian muñ egiñikan... / Non, non? / Ikusi den, Gergori, / Orren garbi beste dantzik, aitor zan or!"

Egiz / Kantatu genezake / Euskaldunak gerala / Dantzik onenen jabe: / Doñu eder au / Len ala zan, ta gaur / Doñu guziyen gain jarri bear litzake, / Zertako bals-polkak / Gazte menditarren artian? / Erdaldetik datoz / Oitura garbiyen kaltian. / Ez, ez / Emen ez dira jayo! / Euskaldunak euskal-dantzak ditu nayo!"

etorri ahalean

Patzi Perurena



Bartolotik Portolo? Bo Bo!...

NI NERONI MAITALE DOAKabea naizenez gero, amodio kanta sotil baten konpasera hasiko natzaizu:

- Maritxo nora zoaz, eder galant hori?
- Iturria Bartolo, nahi baduzu etorri.
- Iturrian zer dago? - Ardotxo txuria.
- Blok edango dugu nahi duzun guztia.

Inongo seme xalo hark sinalatu zigun, amodio kanta inozente horren sinbologia gordea, besteak beste, ardao zuria eta amoranteen ernal hazia uztartuz. Baina begira Bartolo horri, zeinen gizajo ageriden, iturrian zer dagoen galdezka.

Honax beste Bartolo ezagun baten aipamenak nola egiten diren, amodio istilu berdintsutan:

*Bartolok egin omen du lastozko zubia
Haretan pasatzeko bera ta nobia
Pasatzen hasi omen da, ta erori zubia
Bartolok hartu omen du ipurdiko haundia.*

Kantaerak badira asko: "Bartolok hartu omen du sentimentu haundia" eta beste. Dena dela, kanta honetan ere, Bartolok amorante gizajo pobreak irudia bereganatzen du. Lastozko zubia egin du, itxoltxaren baterakoa edo, ez palaziorako harri landuzkoa, eta haretan pasarazi nahi du andre-gaia, bere amodio frogan gaitziteko, baina, pasatzen hasi eta, zubiarekin batera punpa Bartolo.

Beste kanta batean ere aurkitu dizut Bartolo gizajo paperan:

*Nik ikusi nituan San Juan gabian
Txomin eta Bartolo tabernako atian
Ormia zalakuan batak bestiari
Txixe egiteñ zarzar! pragetan alkarri.*

Txominen euskal sinboloak aipatu nituen behiala txoko honetan

bertan, eta ez datoz batere gaizki Bartolo honen aldamenean, moskor alproja paperan.

Erdaraz ere bada "estar, andar, a la bartola" esanera, egoera antsi-kabea adierazteko, eta eskura dudan hiztegi ak azalpen hau ematen diit: "de Bartolo, forma abreviada de Bartolomé, prototipo de personaje despreocupado y perezoso".

Sorrera bera duen beste hitza "bártulos" da gazteleraz. Bartolo izeneko jurista italiar XIV mendeko baten liburu mordoa ezin arrastatuz ibiltzen omen zirelako sortua Zuzenbideko ikasleek. Eta hartatik gero "preparar o liar los bártulos, bartulear, bartuleo" esaiarak, baje baterako prestatzetik hasi eta munduan nolana ibiltzerainoko zentzia adierazten dutenak.

Neure sen pixarrak dio, Bartolo hartatik egunen batean euskaratua ez ote dugun Bortolo / Portolo; egungo senak galduxe badu ere, zentzu beratsua "edo are miserabilegoa" ote zuen bainago Basaburu alde honetan. "Bartolotik Portolo? Bo bo!"... Aditzen ditut bekaitzen irriak, baina, tira.

Goizuetan ezagunak ditut Portolo (Isabeltxo), Portolo(re)n borda eta Portolo(re)n txabola, eta halamoduz bizi zen Joxe Portolo izeneko gizajoa ere ezagutu nuen umetan. Leitzan ere bada Portolo(re)n borda izeneko baserria, 1780-90 urte inguruko mapa batean Blasio-borda izenez ageri dena, sortzez Barreneko seme zen Blasio Sagastibeltza bertan bizi zelakotz bordaxar batean: (Blasio edo Blas izena, bere guztizko zuela gure Jitokastak, eskazale eta behartsuen zaindari baitzen San Blas); zabar arlo-tea nonbait, "Portolo" deituko zioten izengoitiz, eta hartatik gero Portolonborda. Neronek ezagutu nuen Leitzan, aitona Joan Portolo, behiala bordari izena eman zion haren kastakoa, eta baditu pasakariak bere izengoitia lotsaz hartzen zuela erakusten dutenekoak.

Kontuak hola, sumatzen da, jendaje utzi alfer zarpail nabarrari zor zalola Portolo deituta.

Ziria

• Motxorrosolo •


Kikoren langar-lainoa

ANAITASUNA LURRUNDUAN, KIKOK EGIN DEIAREN OIHARTZUNA aditu zen, ohiko hizlariaren eskutik. Animoa ematekoa, aurki, bi hamarkada beteko dituenaren mezua. Dena lanbrotute ez den honetan, langar-lainoa, gurean da. Ez dezala Mitxelena ondu.

Javier Ramos Egiluz Komikigilea

“Komikia jende gazteari zuzendua da”

Nafarroako Gaztediaren Etxeak hiesa eta prebentzioaren inguruan antolatu komiki lehiaketa irabazi berri du Javier Ramos Egiluz iruindarrak Espazioko kondoiak lanarekin. Gaitzak dituen arriskuak islatzea baino, gaixotasuna gizartean dagoela gogorarazi nahi izan du komikigileak, eta, bidenabar, gazteak haren arriskuaz ohartarazi.



● MIKEL SAIZ

HAMASEI URTE BESTERIK EZ dituen arren, ideiak argi dituela antzematen zaio Javier Ramosi. Komikiak egiten ez ezik, itaundutakoak gehiegi pentsatu gabe erantzuten jakin du. Galdetu ahala, zuzen eta azkar bota ditu gordeak zituen burutazioak.

■ **Zure istorioak Espazioko kondoiak izenburua darama. Zer islatu nahi izan duzu?**

Beste planeta batetik lurrera iristen diren preserbatibo batzuk irudikatu ditut. Bizia dute, eta hiesak dituen arriskuaz ohartarazi nahi dituzte lurtarrak, baina hauek ez diete jaramonik egiten. Hori dela eta, espazio untzitik bertatik prebentzio mezuak bidaliko dituzte. Komikiaren oinarria mundu idealizatu da. Mundu horretan dena da zoragarria, baina komikiak adierazi nahi du gauzak hobeagoak izan daitezkeela.

■ **Joan den abenduaren 1ean Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatu zen. Osasunerako Mundu Erakundeak emandako datuen arabera, egunero munduan 7.000 lagunek harripatzen dute hiesaren gaitza, eta, horietatik, erdiak, 24 urtetik beherako gazteak dira. Komikia eraginkorra izan daiteke jendea hiesaren arriskuaz ohartarazteko?**

Baitez uste dut. Nik egin dako komikia jende gazteari zuzendua da. Gazteen arreta deitu nahi du. Munduan hiesaren inguruan benetan dauden arazoak islatu beharrean, horietaz ohartarazten du, eta hor daudela gogorarazi. Finean, gauza bera da. Gazteek irakurtzen badute, eta oroitzen badira oso gogorra den gaitza egon badagoela, oso ona da. Gainera, eraginkorra ere izan daiteke.

■ **Zaila izan da hiesaren inguruko gaia jorratzea?**

Ez. Batzuetan errazagoa da ematen dizuten gai bat garatzea, eta ez zuk bat a s m a t z e a . Behin gaia eta ideia baduzula lanean hasten zara. Ez diot inori errealitatea ukatu nahi izan. Bururatu zitzaidan lehen ideia izan zen begiak eta hankak zituzten kondoiak egitea, eta haien ahotan neurriak hartzeko mezua igortzea. Ongia egin nahi duten extralurtarrak dira.

■ **Nola definituko zenuke zure lana?**

Alaia da eta gazteei zuzendua. Kolore bizi eta fuertekin margotua dago. Horregatik pentsatzen dut gazteen harreta ez ezik, besteena ere lortzen duela.

■ **Zuen komikiak heziketarako material moduan erabiltzeko asmoa ere badu Gobernuak Osasun sai-**

lak. Baliagarriak izan daitezke heziketan laguntzeko?

Uste dut baliagarriak direla modu alai eta entretenigarri batean oroitarazteko oso larria den gaitza bat badela gizartean.

■ **Nola egiten duzu lan?**

Behin ideia duzula istorioaren testua egiten duzu eta DIN-4 orrietan margotzen dituzu marrazkiak. Horien fotokopiak egin eta DIN-3ra pasatzen dituzu. Hori eskanerlean sartu eta badituzu ordenagailuan txuri-beltzean grabatuak. Ondoren, Free-Hand 7 programarekin margotu, inprimatu eta listo. Prest duzu komikia.

■ **Zure aitak 'Aitorren tribua' komikia egiten du Diario de Navarra egunkarian. Bere bidea jarraituko duzu?**

Egia esan lehiaketa irabazi dudana komikiarekin asko ikasi dut. Aita hor izan dut beti gauzak nola egin behar nituen esateko, baina ez nuke komikia nire lanbidea izatea nahi.

■ **Zergatik?**

Artearekin zerikusia duen oro gustoko dut, baina komikiak baino gehiago nahigo dut diseinu grafikoa landu.

■ **Ez duzu zure burua marrazkigile bezala ikusten?**

Ez. Nire aitak dio lan asko ematen duela baina diru

Jabier Ramos Egiluz iruindarrak hamasei urte ditu eta Batxilergo artistikoa ikasten du Iruñeko Arte eta Lan Eskolan. Hangoa bukatu eta gero, artearekin zerikusia duen ikasketaren bat ikasi nahi luke, diseinu grafikoa, batipat. Sariarekin irabazitako dirua Bartzelonan hiru dimentsiotan irudia lantzeko ikastaro bat egiteko ballatu nahi du.

Aisialdia komikiak egiten ez ezik, bestelakoetan ere iragaiten du: gustoko ditu, beste gauza batzuren artean, lagunekin solasean aritzea, edota maketak egitea, eta miniaturak margotzea. Dena dela, aukeran nahiago omen du marraztea eta komikiak asmatzea.

Nafarroako Gaztediaren Etxeak hirugarren urtez jarraian hiesa eta prebentzioaz antolatu komiki lehiaketara aurkeztu den lehen aldia bada ere, Jabier Eduardo Nanciaras 29 urteko iruindarraren aurretik sailkatu da lehiaketan. Eraitza ikusirik, aurrerantzean beste lehiaketa batzuetan parte hartuko duela dio.

gutxi lortzen dela. Aldiz, diseinuarekin kontrakoa gertatzen da, lan gutxiagorekin etekin gehiago atera daiteke. Beraz, lan errazera joan beharra dago.

■ **Orduan, zer egingen duzu aurrerago?**

Hiru dimentsiotan animazio programatzaille moduan lan egitea gustatuko litzaidake. Hala ere, horretan airtzeko baldintza asko bete behar dira eta oso zaila da lan egitea. Dena den, noizbait diseinatzaile grafikoa izatera iritsiko naizela pentsatu nahi dut.

■ **Lehenengo sariarekin 75.000 pezeta (3.000 libera) irabazi dituzu. Zertan erabiliko duzu dirua?**

Hiru dimentsiotan errealtizazio ikastaro bat egin nahi nuke Bartzelonan. Nolanahi ere, oraindik ez dakit ikastaroan hartuko nauten ala ez. Hortaz, printzipioz dirua aurreratu egingen dut. Oraindik gaztea naiz eta badut denbora pentsatzeko.

■ **Beste lehiaketaren batera aurkeztuko zara?**

Bai. Komikiarekin egin dudan aurkikuntza da zerbait egiteko duzunean entretenigarria dela oso. Ez aspertzeko beste modu bat da. Gustako litzaidake gehiagotara aurkezte oso denbora pasa ona delako. Niretzako josteta da, besterik ez.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Pello Goñi

Agintea

ADREILURIK GABE EZ DAGO ERAIKINA altzatzerik. Gauza bera gertatzen zaio potereari, izan ere, bizirik irauteko haren azpian oinarri sendoa edukitzea behar izan baitu beti. Oinarri horrek ez du zertan herria izan behar, aski du elite bat osatzea. Agintearen arkitektura oinarrikoa dugu hori, alegia, gizartearen gehiengoak potere horren inguruan dantzarazten duen hierarkia, gobernu eskuindarregan nahiz ezkertiarregan eratzen dena. Gaur egun, gero eta zabalagoa da elite hori, hedabideen antzerki ikaragarri honetan jende anitzek lehen mailako papera eduki nahi baitu, orok aldi berean zuzendaria eta aktorea nahi du izan, eta zenbat eta potere-harremanak korapilatsuago bihurtu, hainbat eta jende gehiagok aldarrikatzen du haren agintearen zatia. Arestian tarrapatuta marraztutako paisajea gurera ekarri gero hauxe izan liteke emaitza: goian, erregetxoak eta haren aholku-emaileak, gortesau gehienak etsai dituztenak; eta hauen ondok, erresumarik gabeko erregin liraina; paranoia bizimodu bihurtu duen erregeordea; taillerrik sekulan zapaldu ez duten enpresa jauntxoak; negozioetako printzeren bat, Bill Gates-en irudia ohatzeburuan paratuta daukana; poterea berreskuratu nahi dutenak; politika egitera jokatzeko bitartekariak; munduko ondasunak eta zerukoak bereizten ikasi ez dutenak; herri eta langile hitzak higatu dituztenak; espekulatuzaileak; guzti hauen senideak eta lagun zintzoren bat. Hauxe litzateke gure agintearen arkitektura oinarrikoa. Okerrena da, hau guztia, beharbada, merezita dugula.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Tafalla:** Nahi ta nahiez taldeak *Selekxtion* bere azken diska aurkeztuko du gaur, 24:00etan, Gasbalzeka tabernan.
- **Aizoaia:** Laukote taldeak kontzertua eskainiko du Artsaian gaur, 1:30etatik aitzina. Bihar, berriaz, lekukoa hartuko dute Instantane eta Tubabu taldeek. Bi taldeon emanaldia 19:00etan izanen da. Sarrerak 1.500 pezeta balio du.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Xahutondo taldeak Wody Allen zinemagile eta antzerkigile estatubatuarren *Dios* lana taularatuko du etzi, 20:00etan, Gayarre antzokian.

ERAKUSKETAK

- **Lizarran:** Juan Maria E. Sukilbideren margo erakusketa ikusteko aukera dago heldu den ilbeltzaren 17ra arte Gustavo de Maeztu Museoan. Hilaren bukaerara arte berriz, Alfredo Diaz de Cerioren *Visiones del paisaje navarro* pinturak daude ikusgai.
- **Iruñea:** Pintzel galerian Isabel Sanchez Gilen artsitaren pinturak ikusteko aukera dago urtarrilaren 29ra arte.
- **Iruñea:** 'Erase una vez' izenburupean Asun Goikoetxea, Kontxesi Vicente, Teresa Izu, Marian Esteban, Angela Moreno, Rosa Silva eta Belen Flamarqueren lanak ikusteko aukera dago Gotorlekuko Mixtos aretoan urtarrilaren 24ra arte.
- **Iruñea:** Azul galerian Jon Otazuren margoak, eskulturak eta performanceak ikusi daitezke hilaren 17ra arte.
- **Iruñea:** Nafarroako Museoan XIV Nafarroako Pintura sariaren irabazleen lanak ikusteko aukera dago urtarrilaren 17ra arte.

ZINEMA

- **Izaba:** Etzi *Wilow* pelikula pantailaratuko da euskaraz. Emanaldia Museoan izanen da 18:00etan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Alde Zaharra auzo elkarteak ikastaro sorta antolatu du hurrengo hiru hilabeteetarako. Nahi duenak hain-


bat arlotan trebatzeko aukera izanen du: euskal dantzak, areto dantzak (lehen eta bigarren maila), masaia, argazkigintza, yoga, eskulanak, pintura eta marrazkia, aerobic, ehaziri lana eta txalaparta dira eskainitako denborapasak. Izena emateko epea gaur bukatzen da. Ikastaroren batean parte hartu nahi izanez gero 948-21-25-26 telefonora deitu behar da, edo elkarteak

Aldapa kaleko 5. zenbakian duen egoitzara hurbildu 11:30etatik 13:30etara edo 18:00etatik 21:00etara.

- **Iruñea:** Andreak hainbat ikastaro antolatu ditu urte berri-rako. Ikastaroetan hainbat gauza ikas daitezke: autoestima, gizarte habilitateak, yoga, ingelesa, kiromasaia eta etxeko konponketa txikiak egiten. Telefonoak: 13-33-10/13-35-11.

Arestiren liburutegia

Urdirzo-Lacostini



—¡Qué lástema de bois!

Idi urrikariak!